

# BALIO PROPOSAMENA

Gure bizitzan, ohikoa da kotxeko karneta izatea adin nagusiak garenean, izan ere, oso baliagarria eta lortzeko erraza da. Hala ere, kotxe propioa izatea edo momentu guztietan erabilgarri izatea ez da horren erraza, horregatik, zuk gidatuko dituzun taxien enpresa sortuko dugu.

Taxi hauek, ez dira izango ohiko taxiak bezala, desberdintasun nabariak izango ditu. Hasteko, sartzeko, gidariaren atean kajero moduko bat egongo da eta bertan 5€ sartu eta kotxeko karneta aurkeztu beharko ditugu autora sartu ahal izateko. Ondoren, segun eta zein geltokietara joaten zaren, hau da, urrutiago edo gertuago, prezioa aldatu egingo da. Bukatzeko, taxitik atera ahal izateko, pantailan duzun diru kopurua sartu beharko duzu atean dagoen kajeroan. Horretaz aparte, gure autoak primerako kalitatekoak izango dira, hau da, azkeneko teknologiek in ekipatuta egongo dira; pantaila taktila, berogailua duten eserlekuak, teilatu solarra, batzuen artean. Bi motetakoak egongo dira, automatikoak eta manualak, zure gustura aukeratuko duzu zein hartu. Bestetik, zurekin autoan beste lau lagunek sartu dezakete eta diru kopurua ez da igoko.

Autoak oso eskuragarri egongo dira, izan ere, herri txiki guztietan geltoki bat gutxienez egongo da. Hirietan aldiz, 2 kalez behin, geltoki bat egongo da eta bakoitzean 2 auto egongo dira gutxienez beti.

Lana gehiago errazteko, gure webgunean pdf bat doain betez gero, autora errazago eta %25-eko beherapenarekin sartzeko txartel bat bidaliko dizuegu etxera. Honen funtzionamendua oso erraza da; bankura joan eta nahi duzun diru kopurua sartzen duzu eta ondoren, autora sartu eta ateratakoan ateko kajerotik pasa bakarrik egin behar duzu.

Baliteke, autoarekin istripua izatea, baina lasai egon! Guk ordainduko dugu autoaren konponketa.